



LIBURUA

Plazandreak euskal letren errepublikan



IDAZLEEN GORPUTZAK EIDER RODRIGUEZ

LISIPE 6
SUSA, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

Aurten sartu dute *plazandre* hitza Euskaltzaindiaren hiztegian. Haiei buruz hitz egin digute Eider Rodriguezek eta Uxue Alberdik Susako Lisipe bildumako azken bi liburuetan, emakume idazleak eta emakume bertsolariak elkarrizketatu dituzte. Oraingoan, idazleen berbei erreparatuko diegu, literaturarako tartean gaudelako, baina biak irakurtzea gomendatzen dizuegu.

Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi, Miren Agur Meabe, Karmele Jaio eta Uxue Alberdiren ahotsak agertu dira lanean. Egileak "testuinguruaz, sor-kuntzaz, honen sozializazioaz eta gorputzaz, eta hauen uztarduraz" galdetu die idazleoi. Bere hitzetan belaunaldi desberdinetakoak, garai ezberdinetan argitaratzen hasitakoak, hiru liburutik

gora argitaratutakoak eta ama direlako hautatu zituen. Liburuaren xedea: "Zenbateraino eragin diezaiokeen eta nola idazlearen gorputzak literatura idazten duen pertsonari".

Asko gustatu zaigu elkarrizketatuak aurkeztean nola gorputzen diren orriotan: "Bi belarritakoak ez dira berdinak, nahiz eta tentuz aukeratuta diruditen"; "Hatz ukaldi leunez etengabe atontzen du kopetarantz erortzen zaion adatsa"; "Kobre koloreko ilea, ezpainak eta azkazalak gorri"; "Aurpegi osoarekin egiten du irribarre"; "Begi urdinak etengabeko mugimenduan, dena ikusi nahi balute bezala".

Baina Jule Goikoetxea editoreak hitzaurrean aipatzen duen genealogia bota dugu faltan: gai gatazkatsu honi buruz

aurretik idatzitakoari jarraitzea, azken urteotan izan duen garapena azaltzea. Adibidez, Itxaro Bordaren *Emakumeak idazle* (1984) eta Ana Urkizaren *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (2006) lanak presente(ago) egotea.

Kontzientzia hartzeaz ari dira haien irudiaz jabetzeaz: idazleok une eta era desberdinetan ohartu ziren euren emakume izaeraz eta horren ondorioez, eta gatazkatsua izan da hori kudeatzea. Egileak duela hamar urte agerkari hone-tan esan zuen: "Emakumezkoek neutral agertu nahi dute. Bakean. Normal. Arazorik gabe. Maitagarri. Lagun. Kide. Gizonetzko". Izan ere: "Mintzo publikodun emakumeak aldi berean jasotzen ditu emakume kategorizazioa eta ez-emakume izateko deia" (Alberdi). ●